Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Arantxa Lasa Maiztegi

Soraluze, Gipuzkoa (1925)



Aurkibidea

Biografia



Kalebarren 5ean jaio zen. Aita Beasaindik etorritako Soraluzeko praktikantea izan zen. Amaren aita Agirreboluako errotakoa zen. Bost anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Lau urtetatik sei urtera arte eskolaurrean, seitik zortzira erdiko eskolan eta zortzitik hamarrera "Señorita Guillermina" donostiarrarekin Eibarko institutura joateko prestaketak egin zituen. Eibarreko institutuan urte bete ikasi eta gerra etorri zen. Gerra denboran aita bi urtez espetxeratu zuten; gero Logroñora desterratua izan zen. Gerra ostean "Señorita Nieves"ekin ikasi zuen Soraluzen hamalau urte arte. Gero Egañaren akademian, (Soraluzen), kontabilitatea ikasi zuen. Alberdi Guridi Esnal R.C. burdineriako administratzailea izan zen, lantegia itxi zen arte. Gero Jauregi torlojugintzako lantegian aritu zen, jubilatu arte. Lanean eta ikasten jardun du bizi guztian zehar. Arantxa ez da inoiz ezkondu.

Zintak

SOR-065

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-07
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

SOR-066

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-07
- **Iraupena**: 51 min
- **Euskarria**: MiniDV

SOR-071

- **Proiektua**: Soraluze 1936
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ginea, Leire - Guenetxea, Tere
- **Data**: 2009-12-29
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Soraluze 1936

SOR-087

- **Proiektua**: Soraluze 1936
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ginea, Leire - Guenetxea, Tere
- **Data**: 2009-12-29
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Soraluze 1936

SOR-088

- **Proiektua**: Soraluze 1936
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ginea, Leire - Guenetxea, Tere
- **Data**: 2009-12-29
- **Iraupena**: 52 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Soraluze 1936

Pasarteak

1. Goserik ez gerraostean

- **Erref**: SOR-065/001
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Arantxaren familiak ez zuen goserik pasatu gerraostean. Baserrian bazegoen zer jan, eta aitak, Logroñon desterratuta egon zenean, gauza asko bidaltzen zuen bertatik. Bera umea zeneko estraperlo kontuak esaten ditu (1938-39 urtetakoak).

2. Bergarara telak erostera

- **Erref**: SOR-065/002
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:03:07. **Bukatu**: 00:06:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Dendetan telarik salgai ez zen egon hainbat urtetan. Bere ama brodatzaile ona omen zen. Etxeko izarak zeharo hondatuta zeudela, Bergaran bilatu zuten tela saltzen zuen dendatxo bat. Amarekin joanda erosi zuten izara berriak egiteko beste.

3. Amona aristokrata

- **Erref**: SOR-065/004
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:08:32. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Aita Beasaingoa eta ama Agirrebolua (Agarrebulu) errotakoa zen. Aitonak kalean tailerra jarri zuen eta Arantxa jaio eta oraindik bizi den etxea eraiki. Aita Beasaindik etorri zen praktikante lana egitera, eta amarekin ezkondu zen. Amona aristokraziakoa omen zen, ez baserritarra.

4. Eibarren errepublika aldarrikatu zuten

- **Erref**: SOR-065/006
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:12:44. **Bukatu**: 00:16:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Herriko eskolan hasi zen ikasten. Eibar izan zen Errepublika aldarrikatu zuen aurreneko herria. Bertan ezarri zuten inguruko lehenengo institutu-eskola ere. “Ciudad Ejemplar” aldarrikatu zuten. Arantxak hamar urte bete zituenean, Eibarko institutuan sartzeko azterketak egin zituen, eta sartu zen.

5. Gerra pasatu eta berriro eskolara

- **Erref**: SOR-065/007
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:16:29. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra hasi zenean bukatu zen eskola. Aita kartzelaratu eta gero desterratu egin zuten. Fronteak Soraluzetik alde zuenean, Errege Etxean berriro eskola jarri zuten martxan. Erreketeen kuartela izan zen gerran, eta eskola guztia zorriz beteta utzi zuten. Ikasleak etxera bidali zituzten, harik eta eskolok garbitu arte. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

6. Kontabilitateko ikasketak

- **Erref**: SOR-065/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Eskola bukatu eta gero itzuli zen aita desterrutik. Aitak kontabilitatea ikastera bidali zuen herriko eliza ondoan zegoen akademia batera. Han ikasi eta gero, Arantxak lanean hasi nahi zuen.

7. Berdintasunean hezitakoa

- **Erref**: SOR-065/009
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:24:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gurasoek lau seme eta alaba bakarra berdintasunean hasi zituzten. Horregatik jarraitu zuen ikasten Arantxak. Garai hartan neskak etxeko lanetarako prestatzea zen ohitura. Bulego batean hasi zen lanean, eta arratsaldez Eibarko akademia batean ikasten zuen. Lanean eta ikasten jarraitzen zuen.

8. Beti lanean eta ikasten

- **Erref**: SOR-065/010
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:24:36. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Bere tailerreko administrazio lan guztia berak eramaten zuen. Geroago “Cámara de Comercio”k noizbehinka ematen zituen ikastaroetan parte hartzen zuen, lana bukatu ondoren. “Alberdi, Guridi, Esnal, Regular Colectiva” zen Arantxak lan egiten zuen tailerra. Eraikuntzarako sarrailak egiten zituzten.

9. Arantxaren lan ibilerak

- **Erref**: SOR-065/011
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:27:24. **Bukatu**: 00:30:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Alberdi, Guridi,... taillerra itxi egin zuten, eta gero “Tornillería Jaúregui”n hasi zen lanean. Bertan hamabi bat urte lan egin ondoren, jubilatu egin zen.

10. Soraluzeko eskola eta maistra

- **Erref**: SOR-065/012
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:32:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Lau urterekin, eskolaurrean hasi zen; eta, seirekin, erdiko eskolara pasa zen. Zortzitik hamarrera eskola handian ikasi zuen. Azken honetako “Señorita Guillermina” maistra gudariarekin Bilbora joan zen. Hortik Frantziara bidali zuten, ume-talde baten ardurarekin. Soraluzera itzuli eta lana kendu ziotela jakin zuen.

11. Gerran aita etxean atxilotu zuten

- **Erref**: SOR-065/013
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:32:26. **Bukatu**: 00:35:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Gerra-denboran aita etxean geratu zen. Nazionalak sartu zirenean, don Julio Perez Salas komandanteak bere aita nola atxilotu zuen gogoratzen du Arantxak. Atxilotu eta lana kendu zioten. Irailaren 22an tropak sartu eta handik gutxira izan zen atxiloketa.

12. Aita Soraluzetik eraman egin zuen Guardia Zibilak

- **Erref**: SOR-065/014
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:35:25. **Bukatu**: 00:38:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita Soraluzen eduki zuten preso, harik eta Urriaren 12an beste bi soraluzetarrekin batera herritik eraman zituzten arte; hainbat egunetan ez zuten jakin nora eraman zituzten. Euren senitarteko bat Bergarara joan zen hiru gizonon berri bila.

13. Kartzelatik desterrura

- **Erref**: SOR-065/015
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:38:52. **Bukatu**: 00:42:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bergarako kartzelara eraman zutela jakin zuten. Arantxa eta ama joaten ziren aita bisitatzera. Bergaratik Iruñera eta gero Ondarretara eraman zuten aita. Gerra bukatzear zela itzuli zen etxera, baina hilabete gutxitara desterratu egin zuten Soraluzetik.

14. Desterrutik itzuli eta praktikante jarraitu

- **Erref**: SOR-065/016
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:42:02. **Bukatu**: 00:45:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Lau euskal probintzietatik kanpo irteteko agindua bete behar zuen. Logroñora joatea erabaki zuen, eta Donostiako mediku lagunen artean harako gomendioak jaso zituen. Urte bitan han egon eta gero, 1941.ean itzuli zen betiko etxera. Aguazil, postari, Udaleko idazkari eta beste langile publiko askori lana kendu zieten gerran, Arantxaren aitarena tartean zelarik. Aita izan zen lan-postua berreskuratu zuen bakarra.

15. Xabin “Kaxagiña”, Ziriakaren semea

- **Erref**: SOR-065/017
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:45:23. **Bukatu**: 00:49:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Aitak artatu zituen bi kasu kontatzen ditu. Xabin “Kaxagiña” gudaria frontean hil zuten, eta bere anaia Luki Andaluziara preso eraman.

16. Aita medikuntzan ilustratua zen

- **Erref**: SOR-065/018
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:49:04. **Bukatu**: 00:52:27

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Luki eta Xabinen ama alarguna zen, eta herriko alkateak pentsioa ukatu zion. Aita eta Bergarako botikariaren arteko harremanari esker lortzen zituzten botika batzuk. Aitak medikuntza-aldizkari asko irakurtzen zituen, eta azken botika eta tratamenduak ezagutzen zituen.

17. Gerrako bi bandoetako lekukotasuna

- **Erref**: SOR-065/019
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:52:27. **Bukatu**: 00:54:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Alkateak alargun-pentsioa ukatu zion arren, geroago alkatea gaixotu zenean, Ziriakak lagundu egin zion. Gai honi buruzko bien arteko elkarrizketa bat kontatzen du Arantxak.

18. Profanazioa Gernikan

- **Erref**: SOR-065/020
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:54:46. **Bukatu**: 00:57:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Ziriakaren seme Xabinen hilobia urtero bisitatzen du Arantxak Gernika-Lumon. Hilobi hori bi bider profanatu omen dute. Lehenengo profanazioa zelan izan zen, eta gorputzak nork gorde zituen azaltzen du.

19. Gorpuzkiak berriro lekuz aldatu zituzten

- **Erref**: SOR-065/021
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:57:59. **Bukatu**: 01:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Franco hil eta gero, inori ezer esan gabe, gorpuzkiak mugitu egin zituzten berriro. Bigarren honetan gertatukoak kontatzen ditu.

20. Aitona baserritik lanera kalera

- **Erref**: SOR-071/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:04:14

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Aitona baserritarra zuen, baina kalera bizitzera etorri behar izan zuen. Gerrarako arma tailerra ipini zuen, eta etxea eraiki.

21. Aita sendagilearen laguntzailea zen

- **Erref**: SOR-071/004
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:06:25. **Bukatu**: 00:08:38

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Bere aita medikuaren laguntzailea zen eta beti ikasten jarduten zuen. Ama arduratzen zen etxeko lanez.

22. Gizon eta emakumeek ardura desberdinak

- **Erref**: SOR-071/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:08:38. **Bukatu**: 00:09:53

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonezkoek ez zuten etxeko lanetan laguntzen. Garai hartan hasi ziren herriko gizon batzuk umeak kalera paseatzera ateratzen.

23. Bulego-lanetarako ikasketak egin zituen

- **Erref**: SOR-071/006
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:12:12

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Aitak ikas zezan nahi zuen. Gerrak bere ikasketak moztu zituen. Batxilergoan berriz sartzerik ez zuenez, bulego-lanetarako ikasketak egin zituen. 17 urterekin hasi zen lanean.

24. Umetan tratu ona jaso zuen etxean

- **Erref**: SOR-071/008
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:13:51. **Bukatu**: 00:15:08

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bere aitak umeak bigun hartu eta nagusiak zaindu egin behar zirela esaten zuela dio. Tratu ona jaso zuen etxean.

25. Eskola sasoiak, onak

- **Erref**: SOR-071/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:16:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolan tratu ona jaso zuen, ez zituzten zigortzen. Irakasle onak izan zituen.

26. Eskolan euskaraz irakurtzen zuten tarteka

- **Erref**: SOR-071/010
- **Iraupena**: 0:00:17. **Hasi**: 00:16:08. **Bukatu**: 00:16:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Erderaz ikasi behar izan zuen, baina euskaraz irakurtzen zuten batzuetan.

27. Zuka, hika, eta erdaraz etxean

- **Erref**: SOR-071/012
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:16:45. **Bukatu**: 00:19:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Euskarazko liburua irakurtzen zuten. Etxean euskaraz egiten zuten, hika ere bai, baina aitak erdaraz egiten zien.

28. Etxea ondo hornitua zeukaten

- **Erref**: SOR-071/013
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:21:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Bere etxea deskribatzen du. Txapa (ekonomika) eta ura beti izan ditu. Bainera ere bai.

29. Jatorduetako ohiturak

- **Erref**: SOR-071/014
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:23:46

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Bakoitzak bere lekua zuen mahaian. Txapak ur beroa izateko depositu bat zuen. Ospakizun berezietan jangelan bazkaltzen zuten.

30. Ospakizun bereziak: urtebetetzeak eta Gabonak

- **Erref**: SOR-071/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:23:46. **Bukatu**: 00:25:16

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Bakoitzaren urtebetetzea ospatzen zuten. Gabonak bereziki gogoratzen ditu.

31. Gerra aurreko eta ondorengo etxebizitza ereduak

- **Erref**: SOR-071/017
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:26:36. **Bukatu**: 00:29:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Herriko etxe gehienak hiru pisukoak izaten ziren. Tabernari eta dendariak etxeen jabeak izaten ziren eta alokatu egiten zituzten. Frankismoan, ordea, maizterren inguruko legea aldatu egin zen eta errentak izoztu egin zirenez, inork ez zuen etxerik alokatu nahi eta horrek ekarri zuen etxeak erosi beharra.

32. Emakumeak lantegietan

- **Erref**: SOR-071/019

- **Iraupena**: 0:04:16. **Hasi**: 00:31:06. **Bukatu**: 00:35:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
17 urterekin lanean hasi zen bulegari. 7 orduko laneguna zuen. Gerra aurretik tailerretan emakume gutxik egiten zuen lan. Osintxura (Bergara) oinez joaten ziren emakumeak ehun fabrikara lanera, geltokia ipini zieten arte.

33. Cristobal Colon soraluzetarra omen zen

- **Erref**: SOR-071/020
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:35:22. **Bukatu**: 00:38:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Herrira etortzen zen kargudun gizon baten arabera, litekeena da Cristobal Colon soraluzetarra izan izana. Arrazoiak azaltzen ditu. Gizon hura galiziarra zela uste du, eta euskaraz ikasi zuen.

34. Emakumeen soldata, gizonena baino baxuagoa

- **Erref**: SOR-071/021
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:40:34

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
200 pezeta hilean kobratzen zituen eta gizonek gehixeago. Emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen zuten, 150 pezeta inguru. Bulegariek lan baldintza hobeak izaten zituzten. Soldata amari ematen zioten.

35. Irratia, bizikleta, motorra zituzten

- **Erref**: SOR-071/022
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:40:34. **Bukatu**: 00:43:23

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Herriko lehenengo irratia bere etxean izan zuten. Bizikleta ere besteek baino lehenago izan zuen. Aitak motorra erosi zuen. Gauza garrantzitsuak aitak erabakitzen zituen. Amak egunerokoan agintzen zuen.

36. Gurasoek paga handiagoa semeei

- **Erref**: SOR-071/023
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:43:23. **Bukatu**: 00:46:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Mutilek paga gehiago jasotzen zuten. Garai hartan mutilek neskak gonbidatzen zituztelako zela dio. Berak hala ere protesta egiten zuen. Goiz eta arratsalde lan egiten zuten. Ez du gogoan noiz aldatu zen hori.

37. Maiatzaren 1a ospatzea ilegala zen

- **Erref**: SOR-071/025
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:48:35. **Bukatu**: 00:51:58

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Sindikatuak ez baleude bezela zen. Maiatzaren 1a ilegalki ospatzen hasi ziren Eibarren, manifestazioa eginda. Guardia Zibilak atzetik izan zituzten. Gero "San Jose Obrero" izenez hasi zen jai izaten egun hori. 1934ko grebari buruzko kontuak kontatzen ditu.

38. Soraluzeko lantegi baten sorrera

- **Erref**: SOR-071/026
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:51:58. **Bukatu**: 00:55:24

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Herriko lantegi baten sorrera kontatzen du. Jose Servent izeneko gizon batek ipini zuen dirua lantegia sortzeko.

39. Gerra aurreko eta frankismoko alkateak

- **Erref**: SOR-071/027
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:55:24. **Bukatu**: 00:56:51

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Gerra aurrean azkenengo alkatea EAJkoa izan zen. Frankismo garaiko alkateak izendatzen ditu.

40. Herriko gaitzizenak

- **Erref**: SOR-071/028
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:56:51. **Bukatu**: 00:59:28

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Baserriko edo lantegiko izenez izendatzen zen jendea. Bere aitonak labea ipini zuenez "Francisco Labe" esaten zioten.

41. Etxean oso kristauak ziren

- **Erref**: SOR-071/029
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:59:28. **Bukatu**: 01:03:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Etxean erlijiosoak ziren. Etxeko denak mezara joaten ziren. Arrosariorik ez zuten errezatzen etxean.

42. Zinema eta gune politikoak gazteentzat

- **Erref**: SOR-087/003
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:05:44

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Domeketan zinera joaten ziren, besterik ez zegoen nagusientzat eta. Tabernetan gizonak sartzen ziren baina mutil gazteak ez. Zentro politikoak ere bazeuden. Errepublikanoena, karlistena eta EAJrena. Batzokia akzio pribatuekin ipini zuten, gerran etxea ez kentzeko. Baina ez zuen balio izan. Karlistek batzokia hartu zuten.

43. Zinemak 3 txakur haundi balio zituen

- **Erref**: SOR-087/004
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:05:44. **Bukatu**: 00:07:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinera joaten ziren. Umeentzat eta nagusientzat pelikulak ematen zituzten. 3 txakur haundi balio izaten zuen sarrerak. Txakur txikiekin gozoren bat erosten zuten. Lagun baten ama zinezalea zen eta bera eta alaba eramaten zituen.

44. Umetan jolasak asmatzen zituzten; harrakan, zeleminetan, txirikiletan...

- **Erref**: SOR-087/005
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:10:23

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umeek asmatzen zituzten jolasak. "Harrakan eta kastorrian", kaniketan bezala baina intxaurrekin; udaberrian txirikiletan, makila luzeekin txikiak jota zeinek urrutiago bota; zeleminetan, klarionarekin lurrean margotuta hanka-kojoka eta sokasaltoan. Aitak pala bat egin zion eta horrekin jolasten zuen.

45. Andramarixak herriko jaiak izaten ziren

- **Erref**: SOR-087/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:10:23. **Bukatu**: 00:11:58

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Gerra garaian eta ostean, ospakizunik ez zen egiten. Gizonak kartzeletan zeuden asko eta emakumeak umeak zaintzen. Gerra aurretik bai. Andramarixak jai handiak izaten ziren.

46. Musika banda eta txistulari taldea zeuden herrian

- **Erref**: SOR-087/007
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:13:38

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Herrian musika banda zegoen, karlistena, San Ignacio izenekoa. Udalak txistulari taldea zeukan, Basauritarrak. Domeketan bandak jotzen zuen Plaza Barrixan.

47. Domeketan mendira joaten zen meza ostean

- **Erref**: SOR-087/008
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:13:38. **Bukatu**: 00:14:42

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Domeketan, meza motza entzun goizean eta bazkalostean lagunekin mendira joaten zen.

48. Mutilek neskak gonbidatzen zituzten gozotegian

- **Erref**: SOR-087/009
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:14:42. **Bukatu**: 00:15:43

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Mutilekin dantzan ligatzen zen. Neska bi dantzara irteten ziren eta mutilak eskean joaten zitzaizkien. Mutilek neskak gonbidatzen zituzten gozotegian. Udan Debara joaten ziren eta han anaien lagunekin ibiltzen ziren.

49. Neskek etxean abesten zuten, mutilek elizako abesbatzan

- **Erref**: SOR-087/010
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:43. **Bukatu**: 00:17:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Asko abesten zuten. Neskek etxeko lanak egiterakoan kantatzen zuten. Bere aitak mutilei solfeoa erakusten zien. Gizonen abesbatza zegoen elizan. Neskak ezin ziren sartu. Mutil gazteak tiple moduan hasten ziren, organojolearekin, eta gero abesbatzara pasatzen ziren.

50. Batzokiaren inaugurazioko mezetara karlistak ez ziren azaldu

- **Erref**: SOR-087/011
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:17:08. **Bukatu**: 00:19:38

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
1932an batzokia inauguratu zuten. Donostiatik zuzendari ezagun bat etorri zen mezetan elizako abesbatza zuzentzera. Karlistak ez ziren joan.

51. Hogetaka urtekin ezkontzen ziren

- **Erref**: SOR-087/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:19:38. **Bukatu**: 00:21:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Aita 27 urterekin eta ama 23 urte ingururekin ezkondu ziren. Bere anaiak ere adin inguru horretan ezkondu ziren. Jaiotzak ez ziren kontrolatzen.

52. Auzoetako erromeriak

- **Erref**: SOR-087/013
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:22:11

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Auzoetako erromeriak. San Andreskoa lehenengo erromeria izaten zen. Andramarixen ostean Ezozikoa egiten zen, garrantzitsuena. Gero Irurekoa eta San Martzialgoa.

53. Inude joaten ziren herriko andrak

- **Erref**: SOR-087/015
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:23:01. **Bukatu**: 00:24:55

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Denak ziren pobreak, baina mailak zeuden. Andrak inude joaten ziren hirietara, aberatsen umeei bularra ematera eta makalduta etortzen ziren. Bere aitak hitzaldiak ematen zituen errepublikazaleen zentroan, andrak ez bidaltzeko esanaz.

54. Abertzaleak izan dira beti familian

- **Erref**: SOR-087/019
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:29:48. **Bukatu**: 00:32:36

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Betidanik abertzaleak izan dira familian. Bere aitak Acción Vasca nahiago zuen, EAJtik banandutakoa, baina herrian ez zen sortu. Gernikara joan zen aitarekin Sasetaren gorpua ekarri zutenean. Egunkari bi irakurtzen zituzten etxean, La Luz egunkari sozialista eta EAJk ateratzen zuena. Gerra hasitakoan, erre egin behar izan zituzten.

55. Emakumeak politikan: hauteskundeetan botoa eman ez zutenen bila

- **Erref**: SOR-087/020
- **Iraupena**: 0:05:30. **Hasi**: 00:32:36. **Bukatu**: 00:38:06

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Aita mitinetara joaten zen, ama ez. EAJn emakumeen batzarra zegoen herrian. Jende behartsuarentzat zestoak prestatzen zituzten gabonetan. Hauteskundeetan zerrendekin ibiltzen ziren kalean eta botoa eman ez zutenen bila joaten ziren etxeetara.

56. Gerra hasi zenean, 'Frente Popular'ra sortu zen

- **Erref**: SOR-087/021
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:38:06. **Bukatu**: 00:42:29

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:
Gerra hasi zenean, 10 urte zituen. Frente Popularra momentuan sortu zuten. EAJk boterea hartu zuen eta errepublikanoak batu zitzaizkien. Karlista batzuk atxilotu egin zituzten. Milizianoak norbere eskopetekin ibili ziren hasieran.

57. Erreketeak herrira sartu zirenekoa

- **Erref**: SOR-087/022
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:42:29. **Bukatu**: 00:44:42

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Erreketeak herrian sartu zirenekoa gogoratzen du. Aurreko egunetan ez zebilen inor kaleetan. Errepresioa hasi zen orduan. Atxilotutako batzuk Guardia Zibilen kuartelean eduki zituzten eta besteak Tolosara eraman zituzten. Ama eta biak atxilotuei janaria eramatera joaten ziren.

58. Aita Tolosara eraman zuten atxilotuta

- **Erref**: SOR-087/023
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:44:42. **Bukatu**: 00:47:24

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Aita herritik atera zuten, atxilotu eta hilabetera. Iluntze hartan, plazan karlisten musika-banda jotzen ari zen eta emakume karlistak erreketeekin dantzan. Margaritak deitzen zieten emakumeei. Pelaio geroago ume karlistei deitzen zieten. Aita fusilatu zutela uste zuten.

59. Hasieran ez zuten herritarrik fusilatu

- **Erref**: SOR-087/024
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:47:24. **Bukatu**: 00:50:26

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Komandatzia non zegoen kontatzen du. Orduan ez zuten herritarrik fusilatu.

60. Herritar asko hil ziren gerran

- **Erref**: SOR-087/025
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:50:26. **Bukatu**: 00:53:00

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Frontean hildakoak izendatzen ditu. Erreketeek gazteak derrigortzen zituzten haien frontera joatera eta boluntario izendatzera.

61. Gerra hasitakoan, jende asko joan zen herritik

- **Erref**: SOR-087/026
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:54:24

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Ihes egin zuten gehienak Bizkaira joan ziren. Karlistek etxe hutsetatik altzariak eta bestelakoak lapurtu zituzten. Itzulitakoan, ez zuten etxerik izaten.

62. Emakumeei ilea moztu eta kalean ibiltzen zituzten

- **Erref**: SOR-087/027
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:54:24. **Bukatu**: 00:57:38

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Erreketeak familia abertzaleen etxeetara joaten ziren, emakumeak hartu, ilea moztu, errizino-olioa eman eta kalean ibiltzen zituzten. Gizonezkoak atxilotu egiten zituzten, eta batzuk fusilatu.

63. Erreketeak armekin sartu ziren herrira

- **Erref**: SOR-087/028
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:57:38. **Bukatu**: 00:59:16

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Erreketeak sartu zirenean, fusilak bizkarrean zituzten eta "Viva Cristo Rey!" oihukatzen zuten. Ondo prestatuta zeuden. Bergaran kanoiak zituzten.

64. Aurrezkiei eskerrak iraun zuten aita atxilotuta zegoenean

- **Erref**: SOR-087/029
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:59:16. **Bukatu**: 01:02:19

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita kartzelan urte bi egon zen. Gordeta zituzten aurrezkiei eskerrak biziraun zuten. Oso jende gutxi zegoen herrian, eta bakoitzak berearekin aurrera egiten nahikoa zuen.

65. Erreketeak irailaren 22an sartu ziren

- **Erref**: SOR-088/001
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Erreketeak sartu ziren herrira. Erreketeak "txapel gorriak" ziren eta falangistak urdinez joaten ziren. Irailaren 22ko iluntzean sartu ziren herrira.

66. 400-500 errekete sartu ziren

- **Erref**: SOR-088/002
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:07:58

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Erreketeak fusilekin sartu ziren. "Tercio Montejurra"ko 4 konpainia sartu ziren, 400-500 errekete. Orduan herrian oso jende gutxi zegoen.

67. Errege Etxean ipini zuten kuartela

- **Erref**: SOR-088/003
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:07:58. **Bukatu**: 00:11:18

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Kuartela Errege Etxean ipini zuten. Astebete ingurura, aita preso sartu zuten. Beste preso batzuen izenak aipatzen ditu.

68. Herriko kuarteletik kartzeletara eraman zituzten

- **Erref**: SOR-088/004
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:11:18. **Bukatu**: 00:14:05

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Urriaren 12an, kartzeletara eraman zituzten preso batzuk. Ama eta bera kuartelean zeuden orduan, afaria eramatera joanda. Zazpi egunez aita non zegoen ez zekitela egon ziren, eta fusilatu egin zutela uste zuten. Aita Bergarako kartzelan zegoen eta handik Donostiara eraman zuten. Gero desterratu egin zuten eta Logroñon eman zituen urte bi.

69. Aitaren medikuntza tresnak eramaten zituzten etxetik

- **Erref**: SOR-088/005
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:58

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Aita medikuaren laguntzailea zen eta tarteka haren tresnen bila etortzen ziren erreketeak. Medikuak berak esanda zekiten erreketeek zer zeukan aitak etxean.

70. Falangistak umeekin ondo konpontzen ziren

- **Erref**: SOR-088/006
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:15:58. **Bukatu**: 00:18:32

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Falangistak etorri ziren. Umeen oso lagunak ziren. Ez zuten erreketeekin tratu handirik. Fronteak non zeuden aipatzen du.

71. Bonbekin errekete bat hil zuten

- **Erref**: SOR-088/007
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:18:32. **Bukatu**: 00:21:28

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Bonbardaketak izan ziren herrian, baina hegazkinekin ez. Morteroak (bonbak) jaurtitzen zituzten. Beren etxea jo zuen batek eta familia askok hutsik zeuden etxeak okupatu zituzten. Bonbekin errekete bat hil zuten "nahi gabe".

72. Emakume baserritar bat tiroz hil zuten

- **Erref**: SOR-088/008
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:21:28. **Bukatu**: 00:22:55

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Emakume baserritar bat hil zuten, fusilarekin tiroa jota.

73. Karlistek batzokia hartu zuten

- **Erref**: SOR-088/009
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:25:11

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Umeak kalean ibiltzen ziren. Baserritarrak saltzera jaisten ziren kalera. Batzokian karlistak sartu ziren.

74. Umeei jatekoa ematen zieten erreketeek

- **Erref**: SOR-088/010
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:25:11. **Bukatu**: 00:27:28

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Gerra denboran ez zegoen eskolarik eta umeak kalean ibiltzen ziren. Erreketeek jatekoa ematen zieten. Karlistek ez zieten abertzaleei aurpegira begiratzen.

75. Bonbak hasten zirenean, babeslekura joaten ziren

- **Erref**: SOR-088/012
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:34:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bonbak botatzen hasten zirenean, babeslekuan sartzen ziren. Hegazkinak zetozela ikusitakoan, kanpaiak jotzen zituzten, baina hegazkinek ez zioten herriari eraso egin.

76. Baserritarrei janaria kentzen zieten Alemaniara bidaltzeko

- **Erref**: SOR-088/013
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:34:10. **Bukatu**: 00:36:18

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Umeak zirenez, ez zuten beldurrik izan. Alemania gerran hasi zenean, janaria bidali behar izan zuen Espainiak. Baserritarrei janaria kentzen zieten eta udaletxepean batu.

77. Aita deserriratuta zegoela, faszistek lana eskaini zioten

- **Erref**: SOR-088/014
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:36:18. **Bukatu**: 00:39:04

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Aita Logroñon deserriratuta zegoela, faszisten lantegi batean lana eskaini zioten. Lurrindegia zuen batek bulegoa ipini zion lanerako

78. Gerra ostean bueltan zetozen familiek hildakoen berri ematen zuten

- **Erref**: SOR-088/015
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:39:04. **Bukatu**: 00:41:11

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Ihes egindakoak bueltan etortzen hasi ziren, frontea bukatu eta berehala. Haiek eman zuten hildakoen berri. Karlistek iraindu egiten zituzten trenean bueltan zetozen iheslariak.

79. Emakume abertzaleak milizianoentzako arropak egiten

- **Erref**: SOR-088/016
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:41:11. **Bukatu**: 00:42:37

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Emakume abertzaleek milizianoentzat arropak egiten jarduten zuten, eta etxeetara artilea banatzen zuten jertseak eta galtzerdiak egiteko. Emakumeei ez zieten frontean ibiltzen utzi.

80. Gerra ostean, familia batzuei herrian sarrera debekatu zieten

- **Erref**: SOR-088/017
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:42:37. **Bukatu**: 00:46:00

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Bueltan etorri ziren familiak hutsetik hasi behar izan ziren, etxeak hutsik zituztelako eta lanik ez. Familia batzuei ez zieten herrian sartzen utzi, zigor modura, eta lantegiren bat zutenei kendu egin zieten.

81. Fusilatuak libre zeudela esaten zuten

- **Erref**: SOR-088/018
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:46:00. **Bukatu**: 00:49:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Fusilatu egin zituzten herritar batzuk. Libre utzi zituztela esaten zuten ofizialki, hiletarik ez antolatzeko eta bere ondasunik ez jaso ahal izateko. Karlistek armak zituzten gordeta komentuan.

82. Espainiako bandera ez ipintzearren, mehatxatuta

- **Erref**: SOR-088/020
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:49:45. **Bukatu**: 00:52:00

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bere ama mehatxatu egin zuten Espainiako bandera ez ipintzearren. Orduan, soldaduen kamioian Bergarara joan eta erosi zuten balkoian ipintzeko.

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com